

CURRICULUMENKO HELBURUAK

Arlo honetan, hezkuntzako esku-hartzeak ondoko gaitasun hauek garatzeko helburua izanen du:

1. Hizkuntza erabiltzen ikasi, irudikatu, komunikatu, gozatu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.
2. Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez.
3. Beste haurren eta helduen mezuak ulertu eta hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea.
4. Irakurri eta idaztearen erabilera sozialak ulertzen hasi.

GURE HELBURUAK

1. Gure inguruan dauden animaliak ezagutzeaz aparte, gainontzeko kontinentetako batzuk ezagutzea.
2. Animalia bakoitza bere ekosisteman edo habitat naturalean kokatzea.
3. Animalia batzuen ezaugarri fisikoak jakitea.
4. Ingurumenaren zaintza garrantzitsua dela ulertzea.
5. Animalien egoera aktuala ezagutzea eta hauen zainketan parte hartzea eta errespetua sustatzea
6. Nafarroako ekosistema desberdinak ezagutzea
7. Parte-hartze aktiboa.